



Tolosaldeak ere bai esan dio Korrika 14ri, jende ugari bilduz

ATZO ▶ Atzo goizaldean pasatu zen eskualdetik euskararen aldeko lasterketa

JENDETZA ▶ Lekukoaren atzetik jende asko elkartu zen; HITZAK ere bere kilometroa egin zuen ▶ 2,4



HITZAK ere bere kilometroa egin zuen Korrikan Tolosan eta egunkariak banatu zituen bildutako jendearen artean. LEIRE MONTES

TOLOSA ▶

Ikasleen arazoak udaletxera iritsi dira

Udalbatzarra egin dute herriko aisialdi gunez ▶ 5

LEITZA ▶

Harrobien herri kontsulta egin daiteke

Espainiako Ministro Kontseiluak baimena eman du ▶ 7

IBARRA ▶

Misio Astea bihar amaituko da ▶ 6



Besteak beste, ikastolako irakasle batek eraman zuen lekukoa Iruran. HITZA

Gaurtik zabalik

ILEAPAINDEGIA
kyoko

Solana 5 • TOLOSA
Tel.: 943 67 08 13

KORRIKA 14 ▶

Tolosaldeak ere bai

Euskararen aldeko lasterketa eskualdetik igaro da jada, eta jende ugari elkartu du lekukoaren atzetik; Korrika 14an parte hartu duten lasterkariak gogotsu aritu dira aldarrikapen festa horretan



Hitzako zuzendari Joxemi Saizarrek eraman zuen lekukoa Tolosako Araba etorbidean; jende asko bildu zuen lasterketak. AMAIA BELAUNZARAN

LEIRE MONTES
IMANOL GARCIA

Tolosaldeak ere baietz esan dio euskarari, Korrika 14rekin bat eginez. Ikaztegieta izan da lehena harrera egiten eta Adu-nak agurtu du lasterketa hemendik bi urtera arte. Espero bezala igaro da Korrika eskualdetik: bai ordutegi aldetik bai parte-hartze aldetik.

Atzoko goizaldeko ordu txiki-tan pasatu zen lekukoa Bilbo alderuntz eta horregatik korrikazaleek denbora egiten jardun zuten ordua iritsi arte. Batzuk afarian elkartu ziren, sagardotegi eta elkarteetan adibidez, eta beste batzuk tabernetan itxaro zuten. Herri batzuetan txokolatada eta guzti antolatu zuten, indarrak hartu eta lasterketari ekiteko.

Giro ederrean eta gogotsu aritu zen jendea korrikan. Lekukoa hainbaten eskuetan izan zen. Eskualdeko elkarte, enpresa, erakunde eta udalen ordezkariak eraman zuten, tartean Ainhoa Artolazabal txirrindulari ohia, Joxe Mari Agirre, sailburuorde ohia, Joxe Mari Iturralde idazle eta irakaslea, eta Eneko Gorostidi preso ohia, besteak beste.

Bidea zabaltzen zihoan furgonetatik etengabe animatzen zituzten korrikalariak, euskararen aldeko oihuekin. Eta animoak zirela edo ohera joateko gogorik ez, izan zen herri bat baino gehiago zeharkatu zuenik ere. Korrikazaleei harrera eginez, Ibarren, esaterako, txalaparta joaz hartu zituzten herri-ritik igarotzen ari ziren bitartean.

HITZA lekuko

HITZA ere present egon da aurretengo Korrikan, bi modutara. Alde batetik kilometro bat egin du lekukoa eramanez, Tolosako Araba etorbidean. Beste aldetik, egunkaria bera banatu zitzairen Korrikaren esperoan zeudenei. Lekuko moduan eraman zuten korrikalari batzuek Tolosaldeko eta Leitzaldeko euskarazko egunkaria.

Eskualdea zeharkatu zuen Korrikak eta oraindik baditu dozenaka kilometro aurretik igandean Bilbora iritsi bitartean. Bertan bukatuko da aurten *Ni ere bai!* lelopean euskaldun berriak omentzen dituen eta Euskal Herrian zehar milaka lagun bildu dituen lasterketa herrikoa.

OHARRAK ▶

Amaiera. Igandean amaituko da Korrika 14, Bilbon. *Euskal Herria eskalduntzen. Ni ere bai* lelopean, hiriko kaleetatik pasatuko da lasterketa, eguerdi aldera. Bilbora joateko autobusak antolatu dituzte eskualdean: joan nahi duenak Tolosako Raku tabernan ditu salgai bartelak, 8 eurotan. 09:00etan abiatuko da autobusa, Triangulotik.

Korrika Kulturala. Korrikak zeharkatu du jada eskualdea, baina ekitaldirik ere izango dira oraindik. Etzi, esaterako, Juan Antonio Urbeltzen Argia dantza taldeak *Pas de Basque* ikuskizuna eskainiko du, 20:00etan, Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan. Sarrerak udalebean eros daitezke, 6 eurotan —14 urte artekoak, 3 euro—. Jasotako diruaren zati bat Korrikaren alde izango da.



Alegian, beste hainbat lekutan bezala, afaria egin zuten herritarrek, Korrikaren esperoan. HITZA



1. Ikaztegietan, baliarraindarrak Korrikari ongietorria ematen. 2. Alegian. 3. Tolosan, HITZAK Hirukideri lekukoa ematen. 4. Ibarra, txalapartariekin. 5. Ibarra, sasoiatsu. 6. Tolosan, jendeari so. 7. Tolosan. 8. Anoetan. 9. Iruran. 10. Villabonan. 11. Zizurkilera sartzen. 12. Adunan, Tolosaldeetik irteten. ARGAZKIAK: IMANOL GARCIA, NOELIA LATABURU, JOXEMI SAIZAR, INIGO ASENSIO, IRATXE ETXEBESTE, INIGO TERRADILLOS, LEIRE MONTES, ASIER ETXANIZ, GARAZI AZKUE, KORRIKA.

KORRIKA 14 ▶

Euskararen aldeko azken bultzadak

Eskualdeko azken Korrika Txikia egin zuten atzo Altzoko gaztetxoek

IÑIGO TERRADILLOS
NOELIA LATABURU

Ttupi-ttapa, ttipi-ttapa Korrika. Igaro zen bai igaro gure eskualdetik Korrika 14 gaueko ordu txikietan, jendetzaren babespean. Baina gatetxoenek ere omen egin nahi izan diote euskararen aldeko lasterketa honi. Herri gehienek dagoeneko euren Korrika Txikiak burutu dituzte.

Ekitaldi honen antolaketan azkenak alzitarrak izan dira, atzo egin baitzuten korrika festa txikia. Herriko ume, irakasle, guraso zein senideak herriko plazan bildu ziren gaztetxoak lekukoa eskuz esku nola pasa

ikusteko eta gozatzeko. Eta ez zuten damutzeko arrazoirik izan ilusioz beteriko haurtxoen aurpegiak ikusterakoan.

Beste zenbait herritan, aldiz, korrikaren etorreraren aurretik antolatuta nahi izan zuten euren korrika partikularra, Berastegi esaterako. Adin guztietako herritarrak ostegunean ibili ziren lasterka herriko kaleetan, Urepele elkarateak antolatuta. Behin ibilbidea amaitu zutenean *lunch*-a dastatu zuten, elkarrean bertan.

Bestetik gabe igaro da guretik Korrika eta bi urtez itxaron beharko da berriz ere guretik igarotzeko; hala ere, eguneroko erronka dugu euskararena.



Altz. Lekukoa eskuz esku igaro ondoren, bertso saioa egin zuten umeek herriko plazan. NOELIA LATABURU



Altz. Gustura aritu ziren korrika eguzkipean herrian. N. LATABURU



Berastegi. Jende andana bildu zen Korrikan. HITZA



Berastegi. Saria ere izan zuten korri ondoren. HITZA

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

ETXEBIZITZAK

Alegia. Erdialdean, plaza inguruan. 3 logela eta 2 bainu dituen etxebizitza. Mandio. 669 87 19 09.

Azpeitia. Erdialdean. Bizitzera sartzeko. 90 m²-koa, 1,2 eta 3 logela. Bal-koia. 32.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09

Berastegi. 70.000 m²-ko lurra eta borda. 27.000.000 pta.

Caparroso (Nafarroa). Txalet abikia jardinarekin, 2 pisu. Eraikuntza berriak.

Hernani. Eraikuntza handia. 3 logela musika hariarekin. 80 m² eta 40 m² jardinarekin. Etxe ederra. 57.000.000 pta.

Irura. 80 m². 3 logela, 2 bainu. Toki eguzkitsua. Garajea eta trastelekuarekin. Eraikuntza berriak. Mandio. 669 87 19 09

Ibarra. San Ignazio kalea. 2 logela, berogailua, bizitzera sartzeko. 32.000.000 pta.

Ikaztegieta. 100 m². Eguzkitsua. Garaje itxia. Egongela haundiarekin. Mandio. 669 87 19 09

Legorreta. Txalet abikia. Trastelekuak, terraza. Egoera ezin hobean. Bizitzera sartzeko.

Tolosa. Izaskun. 2 logela, sukaldeta eta gela balkoiarekin.

Tolosa. Erdialdean. Eraikuntza berriko apartamentuak. 2 logela eta 2 bainu. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremerentari kalea. Eguzkitsua 3 logela. 30.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Korreo kalea. Apartamentua bizitzera sartzeko. 1 eta 2 logela. Mandio. 669 87 19 09

Tolosa. Laskorain kalea. Egoeran ezin hobean. 2 logela, egongela, sukaldeta, terraza. Sabai altuak. Etxebizitza handia eta gazteentzat. Diseinuzkoa. 45.000.000 pta.

Tolosa. Pintor Lekuona. Bizitzera sartzeko, 2 logela, egongela, balkoiarekin. 29.500.000 pta.

Tolosa. Solana kalea. 40 m². 19.000.000 pta.

Tolosa. Zumalakarregi. 3 logela, igo-gailua, berogailua. 45.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. San Esteban. 90 m²-ko etxebizitza. 3 logela. berogailua, eguzkitsua. 35.000.000 pta.

Tolosa. Gudari kalea. Terraza. Berritua duen etxebizitza salgai. Mandio. 669 87 19 09

Tolosaldea. Etxebizitza berriak. 2 logela. Garajea marrarekin. 35.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Zaldibia. 40 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldera. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

Zegama. Eraikuntza berriak. 3 logelatakoak. Kanpoaldera. 2 bainu. Terraza 45 m². 27.500.000tik aurrera. Mandio. 669 87 19 09

Zizurkil. 3 logela dituen etxebizitza, kanpoaldera. Balkoi itxia, ganbara. Mandio. 669 87 19 09

NEGOZIOAK

Ileapaindegia. Ileapaindegia alokatzeko. 90 m². Guztiz diseinatu. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Belauntza. Pabilioia 250 m². 32.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremerentari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta. **Tolosa.** 428 m²-ko pabilioi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan.

Tolosa. Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Erremerentari kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

Villabona. Lokal berria, 35 m², sukaldetz hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta.

INGURUMENA ▶

Herria hobetzeko ahaleginak

Tolosako hiru ikastetxeetako ikasleek herriko aisialdi guneetako arazoak aztertu dituzte; atzo egindako udalbatzar txikian jakinarazi zizkieten udal ordezkari

IRATXE ETXEBESTE

Zinegotzien gisara, Tolosako Udaleko batzar aretoko mahaiaren bueltan eseri, eta udal ordezkari ei herriko hainbat guneetan ikusten dituzten gabeziak azaltzen aritu ziren atzo goizean Laskorain, Samaniego-Orixe eta Hirukide ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta DBHK ikasleak. Handien pare.

Izan ere, argi utzi zuten Tolosaldeko gaztetxoek helduen kezka berberak dituztela izan. «Bidegorria egiten ari dira Belaten, eta Araba etorbidean ere ikusi dut lurzorua zulatzen ari direla. Baina, lotuta joango al da bidegorria bi lekuetan?», zioen udalbatzar txikian parte hartu zuenetako batek. Bidegorriak ikastetxeetara noiz helduko diren, haur parke berria bustiz gero zer gertatuko den, parkeetan zakarrontziak falta direla... Horiek guztiak adierazi nahi izan zizkieten *zinegotzi* gazteek udal arduradunei, eta haiek galdetutakoari erantzuten jardun zuten Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, alkateorde Olatz Peonek eta Kultura eta Gazteria zinegotzi Andoni Iturzaetak eta Itxaropena Urkiolak, alor horietako teknikariak mahaiaren beste aldean, ikasleek, irakasleek eta Zuloaga Txikiko hezitzaileen artean, zirela. Orotara, 50 bat lagun.

Galderen txanda heldu aurretik, baina, ohiko udalbatzar baten itxura hartu zuen ekimenak. Haurrek eta gaztetxoek hila betetan egindako lanaren diagnostikotik ateratako ondorioak jakinarazi zituzten lehendabizi, Eskolako Agenda 21 proiektuaren baitan, aisiaren, eta, batez ere, kalearen, elkar-gunearen inguruan esateko zituztenak jendaurrean azalduz.

«Guretzat aisiak zera esan nahi du: lagunekin egoteko denbora, denbora libre eta gustuko gauzak egiteko denbora. Gehienok ekintza antolatu-tuetan parte hartzen dugu [%18k izan ezik], baina ekintza horiek ordaindu egin behar ditugu eta oso garesti ateratzen da» esanez hartu zuen txanda gaztetxoetako batek. Horren harira, eskaera batzuk luzatu zizkieten udal arduradunei, gurasoei eta ikastetxeetako arduradunei.

Zinema saioak eta kontzertuak maizago eta merkeago jartzeko, asteburuetan lagune-



Atzo egindako udalbatza txikian ikasleak aritu ziren ondorioak azaltzen udal ordezkarien alboan. HITZA

kin egoteko leku estaliak presatzea, batik bat nerabeentzako aukerak dituen parke handi bat jartzea, bidegorria ahalik eta azkarren egitea eta, «hutsune handia dagoenez», 10 eta 13 urte bitartekoentzat ekitaldiak antolatzea dira gaztetxoek Udalarari egin dizkieten eskakizunak. Gurasoei, berriz, eskolaz kanpoko ekintzak norberak aukeratu ahal izatea eskatzen diete. Baita lagunekin denbora gehiago egon ahal izatea —gaztetxoek— eta gurasoak haiekin gehiago jostatzea —haurrek— ere. Eta ikastetxe-etako arduradunei, azkenik, eskoletako orubeak asteburuetan ere irekita izatea eskatu diete ikasleek.

Konpromisoak eta guzti

Aisilekuak —parkeak, plazarak...— aztertu dituzte hiru ikastetxeetako ikasleek horietako bakoitzean dauden hutsunak jakite aldera. Okorrean, hainbat ondorio atera dituzte —bizikiletan aparkalekurik ez dutela, komunik ez dagoela, zakarrontziak falta direla, edo, daukadan oso zaharrak daudela...—, baina aisialdi gune bakoitzean dauden beharrak ere nabarmendu dituzte, bana-bana. Esaterako, ikasleek aburuz Zaballarreta parkeko ahateen putzia «oso zikina» dago, eta bertako hesia eta etxola «puskatuta». Hortaz, «txukundu, eta garbi mantendu» behar da inguru hori. Zumardi Handiko zoru «gaizki» dagoela, eta apartaketezko soilik erabiltzen dela ere badiote: «Zorua konpondu, eta patinatze, skate-ean ibiltzeko... leku bihurtu behar da».



Gaztetxoak, iriztiak ematen. HITZA

Baina guztiei ezin haiek irtenbidea bilatu. «Jurasiko parkean eta Zerkausian oso giro txarra egoten da, eta beldurra ematen digu», esan dute. Enbido ederra udal ordezkari-entzat. Bada zerrenda luzea osatu dute ikasleek gisa horietako aahulgueneekin, eta, nola edo hala, haiei guztiei konponbidea jartzeko eskatu die Udalarari. Ordea, ez dira eskaerak egin dituzten bakarrak. «Beharrak ikusi ditugun heinean konturatu gara hainbat arazoren kon-

ponbidea gure esku dagoela; horregatik, prest gaude konpromiso batzuk hartzeko». Agindutakoa betez gero, ikasle horiek ez dituzte zakarrak lurrra botako, ipintzen dituzten komunak garbi mantenduko dituzte, iturriak modu egokian erabili eta zakarrontziak, eserlekuak, jolasak... zainduko dituzte, besteak beste.

Gaztetxoek jarrearen arabera izan da alkatearen erantzuna, eta konpromiso batzuk hartu ditu hark ere. Eskoletako ordezkariak egindako eskaerei bi hilabete barru emango die erantzuna, gai zehatz horren inguruan zer eta zein epetan egingo duten esanez; Zerkausiaren erabilaren inguruan aintzat hartuko ditu haien proposamenak; Kultur Etxean egun Haur Liburutegia dagoen lekua Gazteria departamentuari uztea aztertuko du, eta Gazte Topagunetik at geratzen den adin taldekoak Gazteria departamentuarekin harremanetan jartzea bideratuko du. Apirilaren egingo dute ebaluaketa, Eskoletako Foroan.

GERONTOLOGIKOA ▶

Alderdien arteko mahai-ingurua, bihar udaletxean

Gerontologikoaren itxiera izango da gaia; bideoa eta maparen datuak emango dira

ERREDAKZIOA

Bihar, ostirala, hilak 18, 19:30ean alderdi politikoen arteko mahai-ingurua izango da udaletxeko batzar aretoko Zentro Gerontologikoaren itxieraz. Tolosako alderdi guztiak gonbidatu ditu Gerontologikoaren aldeko plataformak, ekitaldiaren antolatzaileak.

Hasteko, itxierak izan dituen ondorioei buruzko bideoa emango dute. Ondoren alderdi bakoitzak itxieraren inguruan izan duen informazioaz eta egin dituen ekintza eta gestioez galdetuko zaie mahaiaren egongo diren ordezkariak.

Hasteko, itxierak izan dituen ondorioei buruzko bideoa emango dute. Ondoren alderdi bakoitzak itxieraren inguruan izan duen informazioaz eta egin dituen ekintza eta gestioez galdetuko zaie mahaiaren egongo diren ordezkariak.

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen maparen datuak ezaugarritza emango dituzte jarraian plataformako ordezkariak.

Alderdien ordezkariak beste txanda bat izango dute, «Zentro Gerontologikoak ematen dituen zerbitzuak gaitzak zer ondorio larriak dituen ikusita», zer konponbide planteatzen duten eta zein konpromiso hartzeko prest dauden azaltzeko.

Azkenik, udaletxeko batzar aretoan biltzen den jendeak galderak eta eskariak egiteko aukera izango du. Zentro Gerontologikoaren aldeko plataformak Tolosako alderdi politikoko guztiak gonbidatu ditu eta mahai-inguruan izango direla espero du. Aurkezle eta moderatzaile lanetan Joxemi Saizar ariko da, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN zuzendaria.

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, kateak, dendak, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzari euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Tolargi: 65 00 16
 ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
 ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona. Anbul.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
 ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
 ▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888
 ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
 ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte, C. Korreo kalea
 20 (Tolosa). 943 67 60 13
 Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).
 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
 anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldia. 687 41 00 32.
 ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldia. 687 41 01 18.
 leitzaldia@tolosaldeko-hitza.info

IBARRA ▶ GIZARTEA



Ekuador eta Angolatik etorritako bi sekularrek hitz egin zuten. i.t.

Mundu erabat desberdinak

Gaur afari solidarioa eta biharko Eukaristiarekin amaituko da astea

IÑIGO TERRADILLOS

Hitzaldi interesgarriaz gozatzeko aukera izan zen herenegun iluntzean Ibarrako Parrokiko lokaletan; izan ere, Angolatik eta Ekuadorretik etorritako bi kristau sekular (Agostiño eta Zoilo) izan ziren Ibarren euren esperientziak berri emateko.

Angolan gerrateak utzi dituenak, hau da, bizi izan duten miseria eta gose egoeraz jabetu ziren entzuzera joan ziren ibartarrak; helden diren laguntzak aurrera egiteko beharrezko izan zaizkiela eta gogor lan egiten dutela euren jendeak bizi baldintzak hobetu di-

tzan azaldu zuten angolar sekularrak. Ekuadorretik etorritako gazteak ere bertan nola bizi diren azaldu zuten. Eskerrak eman zituen Ibarrakoa bezalako misio taldeek ematen dituzten laguntzengatik eta behar handiak baituzte ere umoretsuak direla eta oso baikorrak direla aipatu zuten besteak beste.

Atzo Indiako sabanan laguntzen izan den Joseba Agote sendagileak eman zuten hitzaldia; gaur afari solidarioa egingo da eta bihar aste misiolaria amaitzeko Parroki elkartearen Eukaristi misiolaria ospatuko dute.

IBARRA ▶

Baraualdia egingo dute ostiraletik igandera

I.TERRADILLOS

Asteartean batzar irekia egin zuten Ibarrara herri ekimenekoek eta 50 bat lagun aritu ziren bi proposamenen inguruan eztabaidatzen. Batetik, euskal preso politikoei urtarrean hasi zuten borrokalderi eta herenegun ekin zioten gose grebari atxikimendua adierazteko larunbatean egingo den martxa Fleury-Merogiseko kartzelara jendea Ibarretik joan dadin animatu nahi izan zuten. Martxara joateko

autobusa Tolosako Triangulo plazatik irtengo da larunbatean 08:30ean eta ohiko lekuetan eman ahalko da izena.

Bestetik, gose greban dau dela eta, ostiralean hasi eta igandea bitarte baraualdia egingo dute Ibarrako udaletxe-ko batzar aretoan herriko presoekin bat egiteko nahiarekin. Gainera, hilaren 25ean beteko dira 3 urte Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi atxilotu zituztenetik eta ekitaldi bereziak antolatuko dituzte igandeko manifestazioaren ondoren.

ANOETA ▶

Udalbatzaren ohiz kanpoko bilkura gaur

Gaur egingo da 20:00etan udalbatzaren ohiz kanpokoko bilkura. Bertan eztabaidatu-ko diren gaien artean Tolosako Gerontologikoari buruz Ibon Artola San Miguelek Gerontologikoaren aldeko plataformaren izenean eta Jose Mari Mujika Ezkurak senideen izenean aurkezturiko mozioa eta *Estatus politikoaren alde Euskal presoak Euskal Herrira* buruzko mozioa izango dira.

VILLABONA ▶

Giza-katea egingo da gaur plazatik abiatuta

Gaur arratsaldean, 19:30ean giza-katea egingo da Villabonan plazatik abiatuta. Ekitaldi hau Villabonako Batasunak deituta egingo da, eta *Oztopo guztien gainetik Batasuna orain* izango da kalez kale zabalduko den leloa. Izan ere, mobilizazio eguna da gaur eta horregatik Villabonako Batasunak dei egiten diete bertako herritar guztiei ekitaldi honetan parte hartzeko esanez.

ALEGIA ▶



Umeek adi entzun zioten Aizpea Goenagaren azalpenei. N. LATABURU

Aizpea Goenagaren bisita berezia

Aztoratu samar zebiltzan atzo San Joan eskolako haurtxoak. Ez zen gutxiagorako, izan ere Aizpea Goenaga ospetsuaren bisita berezia jaso zuten. Eguardi aldera heldu zen Goenaga Alegiara eta gazteekin jardun zuen berak idatzitako liburua gainean, *Lau t'erdiko pirataren altxorra* izenpekoa —umeek dagoeneko irakurrita dutena—. Irakurtzearen garrantzia eta piraten jatorriak azaldu zizkien aktoreak eta idazleak, aho bete hortz zeuden umetxoei. Galderen txanda ere izan zuten eta Goenagak euren duda guztiak argitu zituen. Ekimen hau urtez urte burutzen da zenbait idazleekin, idazleen elkarteak bultzatuta.

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolaren emanaldiak

Loatzo musika eskolako taldeek hainbat emanaldi eskainiko dituzte datozen egunetan gure eskualdeko herrietan. Lehenak saioak gaur izango dira Irurako elizan eta Altzoko musika gelan. Biak ala biak 19:00etan izango dira. Bihar ere izango dira entzungai Loatzokoak, Alegian eta Zizurkilan, hain zuzen; lehena 18:00etan Kultur Etxean eta bigarrena 19:00etan goiko elizan.

IBARRA ▶

Kontzentrazioa gaur Kultur Etxearen parean

Gaur arratsaldeko 19:30ean Ibarrako Benito Izagirre kultur etxearen parean kontzentrazioa egingo da. Ibarrako ezker abertzaleak deituta *Eskubide demokratikoaren alde ilegalizatorik ez lelopean* egingo da gaurko kontzentrazioa. Hain zuzen ere, mobilizazio eguna dela eta denak kalera joateko deia luzatzen diete ibarrako herritar guztiei ezker abertzalekoek.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Harrobien inguruan herri galdeketa egiteko bidea libre

Espainiako Ministro Kontseiluak ostiralean eman zuen baimena; Udalera jakinarazpena iritsi eta bost eguneko epean egin behar da deialdia

JAIONE ASTIBIA

Aurreko ostiralean edizioa isaterako honen berri izan eta larunbateko HIRZAN, agertu zen moduan, harrobien inguruan herri-kontsulta egitea baimendu zuten egun hartako Espainiako Ministrari Kontseiluan. Horrela bada, leitzarrek beren sinadurekin sustatu eta iazko abuztuan Udalak egindako baimen eskaerak baiezkotzea jaso du eta herri kontsulta egin eginen da.

442 leitzarrek egin zuten harrobien inguruan herri kontsulta egiteko eskaera, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak abian jarri zuen sinadura bilketari jarraiki. 2003ko azaroan CONVIAL-ek berriz ere Albiñon harrobia egiteko eskaera egin zuela jakinda, talde honek herri kontsultei buruzko urriaren 28ko 27/2002 Foru Legea oinarri hartuta prozedurari hasiera eman zion, sinadura bilketarekin. 2004ko ekainean aurkeztu zituzten Udalean. Geroztik Udalak egin zuen eskaeraren tramitazioa, udalbatzarrean gehiengoz akordioa hartu eta galdera ere zein izan zen aukeratu ondoren, hots «Leitzan harrobirik bai ala ez?». Pauso guztiak goragoan aitatutako legegaren arabera eman dituztela, behin eta berriz nabarmendu izan dute sustatzaileek.

Eta hain zuzen ere, baimena ere ildo horretatik etorri da: «Leitzako Udalaren eskaerak legeak ezartzen dituen betekizun guztiak ditu: udalbatzaren erabateko gehiengoz egindako eskaera izatea, galdegaiaren herriaren eskumenekoa izatea eta bertako biztanleentzat ga-

rrantzi berezikoa izatea», betetzen dituela argudiatu dute.

Aitatutako lege horretan 10. artikuluan ageri da prozeduraren hurrengo urratsen berri. Horrela, baimen hau Nafarroako lehendakariari iritsita, horrek «5 eguneko epean, igorri behar dio —kasu honetan Leitzako— alkateari». Era berean, eta beste 5 egun baino lehen, alkateari dagokio harrobien inguruko «herri kontsultaren deialdia egitea», «bozketaren data» eta «informazio kanpainaren luzapena», adieraziz batera. Bozketa egunari dagokionez, deialdia egin eta 30-45 egunen barranean, igande edo jaiegun batez egin behar dela zehazten du gainera.



Herri kontsulta egiteko eskaera 442 herritarrek egin zuten. J. ASTIBIA

GOTZONE SESTORAIN ▶ HERRI KONTSULTAREN ALDEKO TALDE SUSTATZAILEKO KIDEA

«Aurrekaririk gabeko herri kontsulta egiteko aukera dugu eskura»

Harrobien inguruan herri kontsulta egitea baimendu zutela jakin eta Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzailearekin egon da HIRZA bere lehen erre-akzioak jasotzeko asmoz.

Espero al zenuten halakorik?

Administrazioak nola funtzionatzen duen ikusita, gaia erantzunik gabe geldituko ote zen beldur ginen, eta gaia berriz ere pixka bat mugiaraztekoan ginen. Bestalde, ezezkoa ere ez genuen espero, legeak ezartzen dituen pauso eta baldintza guztiak bete ditugulako. Baina,

bapatean, baiezkotzea ematea, oso berri pozgarria da eta oso baikorra gainera.

Garrantzitsua da?

Oso. Aurrekaririk gabeko herri kontsulta egiteko aukera dugu eskura: bedeinkazio guztiekin, inork aitzakiarik jartzeko biderik gabekoa. Sentsibilitate guztiak hainbat jende hurbilduarazteko oso baliagarria da «ofizialtasun» hori izatea ere.

Behin baimena eskuan izanik, helburuak bete ditu taldeak?

Herri kontsulta egitea da gure helburua eta hori egin dadin bermatzea gure eginkizun lehentasunezkoa. Lehendabiziko urratsa, sinadurak biltzea izan zen; bigarrena, herri kontsultaren eskera egin eta udalak tramitazioa onartzea; hirugarren, Estatuak horretarako baimena ematea; Orain herri kontsulta egitea da hurrengo pausoa.

Noizko izan liteke herri kontsultarako deialdia?

Uda baino lehen egitea komenigarri dela iduritzen zaigu. Baina, edozein moduz, epe batzuk eta badira bete beharrak: jakinarazpenak iritsi, deialdia egin... eta hori guztia Udalak egin behar du, lan administratiboa da. Guk herriko talde politikoko guztiak hitz egiteko asmoa dugu. Gure proposamena heleraziko diegu guztiak. ◀

LEITZA ▶

Gaur ikurrinaz hitz egiteko herri batzarra deituta

Gaur iluntzerako, 20:00etarako zehazki, herri batzarra egiteko deialdia egin du herritar talde batek, ikurrina gail hartuta. Bilera, udaletxeko lehendabiziko solairuko aretoan izanen omen da, atzo jakitera eman zutenez. Honen harira, lehengo ostiralean ospatu zen udalbatzarreara joandako herritarrek, berri ere ikurrina udaletxeko balkoian jarri bazuten ere, bihar amonean ez zegoen balkoian, laugarren aldiz, jada.

LEITZA ▶

Olio-bilketako furgoneta bihar etorriko da

Bihar, hilak 18, etorriko da olio-bilketako Ecogras-en furgoneta herriko plazara, merkatuko garaian, etxeetako erabiltako olioja jasotzera, baina ohi duen baino aste bete lehenago eginen du. Udaletxetik jakitera eman dutenez, hilabete honetan, martxoko azken ostirala jai egitea egokitzen omen zaie olio-bilketako enpresa horretan, hain zuzen ere Ostiral Santu eguna omen delako. Hori dela eta, normalean azken ostiraletan ematen den zerbitzua, kasu honetan aurreratu egin dute.



Olio-bilketako gunea. J. A.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Korrika 14 argazkiak

Euskararen aldeko lasterketak utzitako irudiak ikusteko aukera

Zuk egindako argazkia ere bidali eta web atarian jarriko dugu

